

Nire proiektua gauzatzeko, erreferentzia nire bloga izango da (kaliangora.blogspot.com). Nik blog honetan egin ditudan sarrera guztiak ezinbestekoak izango dira ikasleek beraien proiektua gauzatu dezaten. Hau oinarritzat izanda, 5 saio prestatu ditut, bakoitzean lan konkretu bat gauzatuz. Klase guztiak ordenagailu geletan etgingo ditugu, bakoitzak ordenagailu bat izango duelarik.

1. saioa

Saio honetan, web-ean esku hartzeko lehenengo ta behin bakoitzak kontu bat ireki beharko du googlen. Klaseko gmail-a zein den adieraziko genike (lanak bertara bidaltzeko). Bakoitza bere kontuan sartu eta klaseko BLOG-a aztertuko genuke. Nik bertan jarritako sarrerak ikusiko genituzke.

Lehenengo lana, TOP LIST bat aukeratzea da. Hau da, KalianGora blog-ean jarritako "Rolling Stone" aldizkarian saltseatu eta han dauden listetako bat aukeratu. Bertatik lehenengo 10en lista egin. Lan hau binaka egitea litzateke egokiena, horrela klase orduan hau egingo genuke:

- Google kontua sortu.
- Klaseko bloga eta klaseko gmail-a zeintzuk diren azaldu.
- Rolling Stone aldizkarian sartu eta TOP LIST-ak non dauden adierazi.
- Binaka jarri eta bakoitzak TOP LIST bat aukeratu.
- Word batean lehenengo 10ak adierazi .Argazkiak sartu.
- Gelako gmail-era bidali

Top list politena lortzen duen bikotearen lana blog-ean publikatuko dut.

2. saioa

Bigarren saioan albisteen txokoa aztertuko genuke blog-ean. Horrela bakoitzak euskal egunkarietan sartu (gara, berria, diario vasco...) eta kultura arloan musikaren inguruko albiste bat aurkitu beharko du. Albiste hori word batera pasa eta berriro gmail-era bidali beharko dute. Albisterik originalenak edo egokianak direnak blogean zintzilikatuko ditut.

Saio honetan beraz musikaren inguruko berriak landuko ditugu.

3. saioa

Saio honetan biografiak landuko ditugu. Horretarako nik blogean adierazitako PREZI aurkezpena ikusiko dugu. Oinarritzat hartuta binaka jarri eta musikari baten inguruan informazioa aurkitu beharko dute. Biografia delakoa zer den azaldu eta martxan hasi beharko dute.

Informazioa aurkitu ostean google presentation nola egiten den jarri dudan tutoriala ikusi

beharko dute eta gutxinaka saiatu biografia aurkezpen bezala prestatzen.

4. saioa

Google presentation-a bukatzen utzi. Ondoren, klaseko blogean jarritako karaokea nola egiten den ikusi eta egin. Saiatu aukeratutako musikariaren inguruko karaokea egiten.

Proiektu finala karaokea izango da. Egindako movie maker-a ere ikusgai izango dute klasean, ikusi dezaten web-ean nolako proiektuak gauzatu daitezten. Gustoko badute, hurrengo proiektua hori izan daiteke. Oraingoz karaokea presta dezatela (nahiko da estrofa bat eta estribiloarekin).

5. saioa

Karaokea amaitzen utzi eta aurkeztu egingo ditugu klasean, denon artean abestuz. Azkenik, denbora baldin badugu, bakoitzari docs bat egitea eskatuko diot. Bertan egindako lanari nota bat jarritz eta ebaluatuz. Orrialde erdi gutxi gora behera eta gmail-era bidali.

Azkenik aipatuko diet, etxean ahal badute bloga bisitatzea eta etxekoei erakustea egindako lan guztiak non ditugun ikusgai.

Nire proiektua oso praktikoa dela uste dut, blogean jarritako sarrerak oinarritzat hartuz ikasleek proiektu antzekoak edo berdinak egin beharko dituzte. Erreza izango da, izan ere, klasean burutko ditugu lan gehienak eta asko talde txikietan izango dira.

3. ziklorako zuzenduta egongo da, ordenagailuetan jakintza gehiago dituztelako eta motrizitateak errezago laguntzen dielako “sagua” eta “teklatura” erabiltzen.

Karaokea egitea proiektu finaltzat jotzen dut, horrela google presentation, youtube, microsoft word eta gmail-a erabiltzea eskatzen dielako. Guzti hau saio guztietan zehar landuko dugu gutxinaka eta horrela azken egunerako prest izango dute. Gainera karaokea egiteak, gustoko abesti baten inguruan egitea ekartzen du normalean, izan ere, gero denon artean abestu beharko dugu. Horrela bakoitzaren gustuen inguruan hitz egin dezakegu, baita musika zein motatakoa den, zein instrumentu entzuten ditugun... Musika arloa landu dezakegu beraz web-a ere erabiliz.